

HAIZE BERRIAK NAZIOARTEKO I. LEHIAKETA, **BANDARAKO KONPOSIZIOAK EGITEKO. OINARRIAK**

Haize Berriak Sakanako Musika Elkarreak, Altsasuko Udaleko Kultura Sailak eta Nafarroako Kutxako bezeroek, “Zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakitzen duzu” ekimenaren bidez, HAIZE BERRIAK NAZIOARTEKO I. LEHIAKETA, BANDARAKO KONPOSIZIOAK EGITEKO antolatu dute. Sariak honako hauek dira: 8.000 euro, konposizioa estreinatzea eta grabatzea.

Lehiaketan parte hartzeko baldintza hauek bete behar dira:

Lehenengoa. Parte-hartzaileak:

Lehiaketara edozein musikagile aurkezten ahal da, herritartasuna edozein izanik ere eta adinean ere mugarik ez dutelarik.

Bigarrena. Konposizioak.

Parte-hartzaileek nahi adina konposizio aurkezten ahal dute. Lanek jatorrizkoak izan beharko dute. Hauetariko lan bat, aldeztu aurretik estreinatua, argitaratua edo beste lehiaketa batean saritua izan dela egiaztatzen bada, epaia bertan behera utziko da, eta eraginik gabe.

Hirugarrena. Obra aukeratzea eta estiloa.

Lanaren estetika eta teknika libreak izango dira., bakarlari gabekoak; erdi-mailako zailtasuna izango dute (3-4 graduak nazioarteko sailkapenean) eta 10 minutuko iraupena izango dute, gutxienez eta 15 minutukoa, gehienez. Konposizioak eranskinean ezarritako plantillaren arabera joak izateko instrumentatuko dira.

Laugarrena. Lanaren aurkezpena.

Parte-hartzaileek partitura osoa aurkeztu beharko dute, koadernatuta. Lanen launa ale aurkeztu behar dira. Euskarri informatikoz landutako lanak izango dira, baina eskuz egindako lanak onartuak izango dira (zuzenketarik gabe eta argiak). Lanak sarituak suertatuz gero, egileak euskarri informatikora moldatu beharko ditu epaimahaiak deialdia ebatzi eta 30 egunera.

Bosgarrena. Aurkezteko epea.

Konposizioak aurkezteko epea 2009ko uztailaren 31n amaituko da. Postaz edota garraio agentzia bidez bidalitako lanetan lana noiz eman zen adierazi beharko da.

Epaimahaiak 2009ko irailaren 15a baino lehen emango du epaia.

Seigarrena. Lanak bidaltzea.

Helbide honetara bidali behar dira:

Haize Berriak Nazioarteko I. Lehiaketarako. Kultura Batzordea
Altsasuko Udala
Iortia Kultur Gunea
Pilotalekuko zeharbidea z.g. P.K.: 31800. Nafarroa

Honakoa adierazi beharko da: HAIZE BERRIAK NAZIOARTEKO I. LEHIAKETA, BANDARAKO KONPOSIZIOAK EGITEKO lehiaketarako, eta ezin izango da igorlearen izena eman.

Partiturek ezin dute eraman sinadurarik, ezta egilearen izena iradokitzen ahal duen ezein inskripziorik ere. Partiturak lelo baten bitartez aurkeztuko dira.

Lanekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da; kanpoaldean konposizioaren leloa edota izenburua idatzi behar da, eta barnealdean, ondokoak: konposizioaren leloa edota izenburua, egilearen izen-abizenak, helbidea, harremanetarako telefonoa, adierazpen formal eta sinatua—non adieraziko baita lana ez dela ez argitaratu, ez editatu, ez estreinatu izan—. Halaber,

lehiaketako oinarri guztiak onartzen direla adierazten duen agiria, NANaren fotokopia eta, aukeran labur adierazita egileri buruzko oharra aurkeztu ahalko dira.

Saritutako lanaren egileak lanaren material osoa aurkeztu beharko du epaitza jakitera ematen denetik 30 eguneko epean.

Zazpigarrena. Egileen eskubideak.

Irabazleak Jabetza Intelektualari buruzko Legeak egileei aitortzen dizkien eskubide guztien jabe segituko du izaten, entzunaldi publikoek, edizio inprimatuez, grabazioek edota Legeak aitortzen dien beste edozein eskubidez bezainbatean.

Zortzigarrena. Epaimahaia.

Epaimahaia, besteak beste, musika arloan ospea duten hiru kidek osatuko dute. Kaudimen profesional eta teknikoak izango du betiere epaimahaiak, eta nork osatzen duten epaitza jakitera ematen den egunean jakinaraziko da. Altsasuko alkateak edo bera ordezkatzeko duen pertsonak idazkaritza lanak egingo ditu, honek ahotsa bai baina ez du boto eskubiderik izango.

Epaimahaiak oinarri honetan ezarritakoarekin bat ez datozen lanak kanporatzen ahal izango ditu, horiek akastunak jota.

Era berean, saria hutsik ahal izango du, obrek behar besteko mailarik ez izateagatik.

Epaimahaiaren erabakia egileari berari jakinaraziko zaio. Halaber, prentsaurreko bidez eta elkartearen web orrialdean emango da aditzera.

Epaimahaiaren eta Lehiaketako Zuzendaritzaren erabakiak apelaezinak dira.

Bederatzigarrena. Arau orokorrak.

Saritutako lana Altsasuko Udalaren eta Haize Berriak Bandaren ondare izatera pasatuko da, Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babesten duen jabetza intelektualaren eskubideak errespetatuz betiere.

Derrigorrezkoa izango da ondokoa aipatzea obra saritua agertzen den kontzertuen programetan, inprimatutako egitarauetan eta ikus-entzunezko hedabideetan:

HAIZE BERRIAK NAZIOARTEKO I. LEHIAKETA, BANDARAKO KONPOSIZIOAK EGITEKO. Lehen saria.

Halaber, antolatzaileek eskubidea dute oinarri hauek aldatzeko.

HAIZE BERRIAK NAZIOARTEKO I. LEHIAKETA, BANDARAKO KONPOSIZIOAK EGITEKO lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar berarekin. Oinarri hauen interpretazioari buruz sor litekeen edozein zalantza epaimahaiak ebatziko du eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Hamargarrena. Sariak.

Hona sariak:

Irabazleari 8.000 euro eta diploma emango zaizkio (saria zatiezina da).

Zenbateko hauei PFEZ arautzen duen araudiak aurreikusitako erretentzioa aplikatuko zaie.

Hamaikagarrena. Saritutako lanaren grabazioa.

Saritutako lana Haize Berriak bandak Altsasuko Iortia Kultur Gunean estreinatuko da, 2009ko abenduan egingo den kontzertuan.

Estreinu ondoren saritutako lana cd euskarrian grabatzeko konpromisoa hartzen du antolatzaileak.

Antolatzaileak saritutako lana geroan grabatu ahal izango du, horretarako egileari baimenik eskatu gabe.

Hamabigarrena. Saritu gabeko lanak itzultzea.

Saririk jaso ez duten lanak jaso ahal izango dira epaimahaiaren erabakia jakinarazi eta bi hilabeteko epean, betiere egileak eskatuta. Kultura Sailean jaso ahal izango dira edo bidaltzeko eskatu, betiere bidalketa-gastuak egileraren kontura izango direlarik. Behin epe hori pasatu eta gero, lanak suntsitu egingo dira.

Hamahirugarrena. Deialdia zabaltzea.

Deialdia Kultura Saileko iragarki taulan eta elkartearen web orrian (www.haizeberriak.com) argitaratuko da. Halaber, haren berri emango zaie egokitzat jotzen diren erakunde guztiei ere.

HIRUGARREN OINARRIAN AIPATZEN DIREN MUSIKA TRESNAK:

Partitura
Txirula 1. eta 2.
Piccolo
Oboea 1. eta 2.
Fagota (2. aukeran)
Errekintoa
Klarineta 1., 2. eta 3.
Klarinete baxua
Saxofoi altuak Mib 1. eta 2.
Saxofoi tenoreak Dib (2. aukeran)
Saxofoi baritonoa
Fiskornoa 1. (2. aukeran)
Tronopetak Si bn 1., 2. eta 3. (4. aukeran)
Tronpak Fan 1., 2., 3. eta 4.
Tronboiak 1., 2. eta 3. (baxua)
Bonbardinoa Don 1. eta 2.
Tubak Don
Tinbalak
Perkusioa (4 perkusionista)

Aukeran:

Akordeoa:
Kontrabaxua
Pianoa
Sintetizadorea



ALTSASUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ALSASUA
Kultura Saila-Área de Cultura



HAIZE BERRIAK
SAKANAKO MUSIKA ELKARTEA

✕ un proyecto ✕✕✕
elegido por
clientes de **can**